

**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, 2002ko abenduaren 2koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruarena. Honen bidez, jendaurrean jarzen da ondoren aipatzen den instalazio elektrikoa: lur azpiko linea elektriko bat eta ebaketa zentro batzuk Zierbenako udalerrian.

2621

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****Zk-1070**

24/2003 DEKRETUA, otsailaren 11koa, Euskadiren Argentinako Ordezkaritza sortu eta arautzen duena.

Herrialde iberoamerikarrak izan dira batez ere euskal herritarren migrazio mugimenduen helmuga, eta, denborarekin, hasierako harreman afektiboak eta kulturakoak aberastu egin dira, harreman ekonomikoak ere sortu baitira. Hortaz, Euskal Herriko eta herrialde horietako herritarren loturak estutu eta sendotu egin dira.

Gaur egun, Iberoamerikak igarotzen duen ekonomia-beheraldiaren eraginez, herrialde horiekin elkartzen gaituzten loturak sendotu egin dira hiru eremu hauetan bereziki: garapenerako lankidetzan, euskal gizataldeei laguntzeko jardueretan eta harreman sozioekonomiko eta kulturaletan.

Euskal gizataldeei laguntzea dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legeak honoko helburu hauek ezarri zituen besteak beste: gizarte, kultura eta ekonomia harremanak instituzionalizatzea eta kanpoan diren euskaldunak erabat babestea eta sustatzea, hainbat eskubide eta zerbitzu aitortuz eta emanaz. Legea indarrean jarri zenetik hona ikusi da ezarritako helburuak gauzatzeko nahitaezkoa dela lankidetzaren eta partaidetzarako bide egokiak ezaritzea.

Garapenerako lankidetzaren dela eta, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaz Estatuak uztailaren 7an emandako 23/1998 Legeak dio giza garapen globala sustatu behar dela, garapenerako lankidetzaren inguruko politikak eraginkorrak eta koherenteak izan daitezkeen eta, horrela, mundutik txirotasuna desagertu eta garapen bidean dauden herrien hazkunde ekonomikoa iraunkorra izan dadin. Legeak berak dio autonomia erkidegoeta-

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO de 2 de diciembre de 2002, del Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por el que se somete a información pública la línea subterránea y centros de seccionamiento en el municipio de Zierbena.

2621

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****Nº-1070**

DECRETO 24/2003, de 11 de febrero, por el que se crea y regula la Delegación de Euskadi en Argentina.

Los movimientos migratorios de la población vasca se dirigieron de manera prioritaria a los países iberoamericanos. Así, con el transcurso del tiempo, las iniciales relaciones afectivas y culturales han ido enriqueciéndose con relaciones económicas, de forma que los vínculos entre el pueblo vasco y los pueblos de dichos países han ido fortaleciéndose y estrechándose.

Actualmente, la situación económica desfavorable por la que atraviesa Iberoamérica, ha propiciado que las relaciones especiales que nos unen con estos países se hayan estrechado fundamentalmente en tres ámbitos: la cooperación al desarrollo, la atención a las Colectividades Vascas y las relaciones socio-económicas y culturales.

En el ámbito de la atención a las Colectividades Vascas, la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de Relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, marcó entre sus objetivos el de institucionalizar las relaciones sociales, culturales y económicas y el del fomento y la protección integral de los vascos en el exterior, mediante el reconocimiento de una serie de derechos y prestaciones. Desde su entrada en vigor se ha apreciado la necesidad de establecer cauces adecuados de colaboración y participación, en aras de lograr una mayor efectividad en la consecución de los objetivos marcados.

En el ámbito de la cooperación al desarrollo, la Ley estatal 23/1998, de 7 de julio, de Cooperación Internacional para el Desarrollo, consagra la necesidad de promover un desarrollo humano global, en orden a asegurar y potenciar la eficacia y coherencia de las políticas de Cooperación para el Desarrollo, con el objetivo de erradicar la pobreza en el mundo, así como la promoción de un crecimiento económico duradero soste-

tik egiten diren jarduerak gizartearen beraren adierazpen solidarioa direla, eta oinarri hartzen ditu aurrekontu autonomia eta jarduerak garatzeko eta gauzatzeko autoerantzukizuna.

Euskal Autonomia Erkidegoak elkartasunezko konpromiso iraunkorra du garapen bidean dauden herrialdeekin, eta aurrekontu operatiboaren %0,7 ematen die.

Xede horretara bideratutako baliabideen garrantzia ikusirik, beharrezkoa da egitura eta bide egokiak jartzea garapenerako lankidetzaren helburuak gauzatu ahal izateko.

Iberoamerikako herrialdeen artean, Euskal Autonomia Erkidegoak laguntza garrantzitsua ematen dio Argentinari garapenerako lankidetzaren alorrean eta lurralde horretan burutzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoak nazioarteko eragina duten jarduerak, dagozkion eskumen-tituluen eremuaren barruan. Jarduera horien garrantziak eta muntak komenigarri egiten dute Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari bat jartzea, garapenerako lankidetzan eta euskal gizataldeen alorrean erkidego honek Argentinan burutzen dituen jarduerak eta nazioartean garrantzia dutenak bateratzeko.

Horren ondorioz, Jaurlaritzaren - Lehendakariaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko otsailaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Sorrera.

Euskadiren Argentinako Ordezkaritza sortzen da, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren barruan.

2. artikulua.— Aplikazio eremua.

Euskadiren Argentinako Ordezkaritza da Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari organoa garapenerako lankidetzari, euskal gizataldeekiko harremani eta sektore anitzeko interesen defentsa eta sustapenari dagozkien, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan.

3. artikulua.— Zereginak.

Aurreko artikuluan zehaztutako eremuaren barruan, Euskadiren Argentinako Ordezkaritzak zeregin hauek izango ditu:

– Euskal Autonomia Erkidegoak Argentinan dituen gizarte eragileen arteko lankidetzaren sustatzea eta horien bilgune izatea.

– Ikustaldiak, elkarretaratzeak eta informazio trukeak egiteko harreman organoa izatea.

nible en los países en desarrollo. En este sentido la propia Ley establece que la actividad que se realice desde las Comunidades Autónomas es fruto de una expresión solidaria de la propia sociedad, al tiempo que se basa en los principios de autonomía presupuestaria y autoresponsabilidad en su desarrollo y ejecución.

La Comunidad Autónoma de Euskadi tiene un permanente compromiso solidario en los países en desarrollo, y a ellos destina el 0.7% del presupuesto operativo.

La importancia de los recursos destinados a este fin requiere de una estructura y de unos cauces que posibiliten la materialización de las finalidades de la Cooperación para el Desarrollo.

En el marco iberoamericano, Argentina es uno de los países a los que la Comunidad Autónoma de Euskadi destina una importante ayuda en la cooperación para el desarrollo y donde realiza una actividad con proyección internacional, en el ámbito de los títulos competenciales que le corresponden. La trascendencia y volumen de estas actividades aconsejan el establecimiento de una Delegación de la Comunidad Autónoma de Euskadi en este país, con el fin de cohesionar las actividades de relieve internacional y las actividades que la Comunidad Autónoma de Euskadi desarrolla en el mismo en las áreas de la Cooperación al Desarrollo y de las Colectividades Vascas.

En su virtud, y a propuesta de la Presidencia del Gobierno – Lehendakari, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 11 de febrero de 2003.

DISPONGO:

Artículo 1.— Creación.

Se crea en el seno de la Secretaría General de Acción Exterior, la Delegación de Euskadi en Argentina.

Artículo 2.— Ámbito de aplicación.

La Delegación de Euskadi en Argentina será el órgano de representación de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de Cooperación al Desarrollo, de relaciones con las Colectividades Vascas y de defensa y promoción de intereses multisectoriales en el ámbito de las competencias que corresponden a la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 3.— Funciones.

Con carácter general, corresponde a la Delegación de Euskadi en Argentina, en el marco de actuación señalado en el artículo anterior, las siguientes funciones:

– Promover la colaboración y el encuentro entre los agentes sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Argentina.

– Servir de órgano de relación para el establecimiento de visitas, encuentros, e intercambios de información.

– Euskal Autonomia Erkidegoko operadoreei Argentinan bilkurak egiteko azpiegiturak eskaintzea eta horiei laguntzeko zentroa izatea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu eta jardueren buruzko aholkularitza teknikoa, orientazioa eta informazioa ematea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko operadoreek Argentinan izango dituzten beharrak aurreikustea eta proposamenak bideratzea.

4. artikulua.– Eusko Jaurlaritzaren Argentinako ordezkaria.

1.– Eusko Jaurlaritzaren Argentinako Ordezkaritzaren titularrak zuzendari maila izango du ekainaren 30eko 7/1981 Legean aurreikusitako ondorioetarako.

2.– Euskadiren Argentinako Ordezkaritzaren titularrak kontratazio organo lez jardungo du, Ordezkaritzak dituen egitekoen arloan antolamendu juridikoak egotzen dizkion ahalmenak erabiliz. Gehienez, hama bi mila euroko (12.000 euro) kontratuak egin ditzake, baita horri dagokion gastua baimendu ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Euskadiren Argentinako Ordezkaritzak bitarteko material eta pertsonal nahikoa izango du bere jardunerako.

Bigarrena.– Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari baimena ematen zaio Euskadiren Argentinako Ordezkaritza jardunean jartzeko neurriak har ditzan beharrezko izapideak egin eta gero.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Lehendakaritzak Dekretu hau gartzeko eta gauzatzeko behar diren xedapenak emango ditu.

Bigarrena.– Ogasun eta Herri Administrazio Sailak Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko behar diren aurrekontu eragiketak egingo ditu.

Hirugarrena.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko otsailaren 11n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

– Servir de infraestructura y de centro de apoyo para el establecimiento de encuentros en Argentina entre operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Asesoramiento técnico, orientación e información sobre los servicios y actuaciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Evaluar las previsiones de las necesidades de los operadores de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Argentina y canalizar las propuestas correspondientes.

Artículo 4.– Delegado del Gobierno Vasco en Argentina.

1.– La persona titular de la Delegación del Gobierno Vasco en Argentina tendrá, a los efectos previstos en la Ley 7/1981, de 30 de junio, el rango de Director o Directora.

2.– La persona titular de la Delegación de Euskadi en Argentina actuará como órgano de contratación, en el ámbito funcional de la Delegación, hasta el importe de doce mil euros (12.000 euros), con las facultades que el ordenamiento jurídico atribuye a los mismos, incluyendo la autorización del gasto correspondiente.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– La Delegación de Euskadi en Argentina dispondrá de los medios materiales y personales necesarios para su funcionamiento.

Segunda.– Se faculta a la Secretaría General de Acción Exterior para, previos los trámites oportunos, adoptar las medidas necesarias para la puesta en funcionamiento de la Delegación de Euskadi en Argentina.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza, dictará las disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

Segunda.– El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

Tercero.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.